BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5434

AGINDUA, 2012ko azaroaren 9koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Kutxa Fundazioa»ren estatutuetan egindako aldaketa onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi da, eta aztertu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko maiatzaren 30ean, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan sarrera eman zaio Javier Aldazabal Etxebarriak, «Kutxa Fundazioa»ren izenean eta haren letratu-aholkulari gisa, aurkeztutako idazkiari.

Eskabidearekin batera, honako eskritura publikoaren kopia baimendua aurkeztu da: patroien kargu-uzte eta izendatzeei eta estatutuak aldatzeari buruzkoa; 2012ko apirilaren 18an, Fundazioaren Patronatuko kide ez den idazkariak, doña Rosa Leal Sarastik, egiletsitakoa, hain justu ere Donostiako Fermín Lizarazu Aramayo notarioaren aurrean (protokolo-zk.: 1.046).

Eskritura publikoari honako agiri hauek erantsi zaizkio:

– Donostian, 2012ko martxoaren 5ean, idazkari legez doña Rosa Leal Sarastik, Xabier Iturbe Otaegi lehendakariaren oniritziarekin, emandako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, 2012ko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez, hartutako erabakiak jasotzen dira, besteak beste: Carlos Tamayo Salaberria, Fernando Martínez Jorcano Eguiluz eta Carlos Ruiz González patroi kargutik kentzea, Kutxabank-en integrazioa dela-eta, eta Zuzendari Nagusiaren eta Komunikazio eta Gizarte Ekintzako zuzendariaren karguak desagertu direlako.

– Donostian, 2012ko martxoaren 5ean, idazkari legez doña Rosa Leal Sarastik, Xabier Iturbe Otaegi lehendakariaren oniritziarekin, emandako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, 2012ko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez, hartutako erabakiak jasotzen dira, besteak beste: Fundazioaren Estatutuetako 20., 25. eta 26. artikuluak aldatzea, Kutxabank-en integrazioa dela-eta.

Eskrituraren zati nagusian, aldatutako artikuluen berridazketa jasotzen da, osorik, bai eta fundazio-estatutuetako testu bategina ere.

– Donostian, 2012ko martxoaren 5ean, idazkari legez doña Rosa Leal Sarastik, Xabier Iturbe Otaegi lehendakariaren oniritziarekin, emandako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, 2012ko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez, hartutako erabakiak jasotzen dira, besteak beste: Martínez Jorcano Eguiluz eta don Carlos Ruiz González Kutxa Fundazioko patroi izendatzea; jaun horiek bertan ziren, eta adierazi zuten eze, ez zeudela bateraezintasun kasuren baten –legez aurreikusitakoan–, eta berariaz onartzen zituztela euren izendapenak.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da honako xedapen hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan –irailaren 2ko 13/2012 Dekretuaren bidez aldatu zen azken dekretu hori.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Kutxa Fundazioa»ren estatutuetako 20., 25. eta 26. artikuluen aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, eta eskritura publikoan ezarritakoarekin bat etorriz. Eskritura hori –bertan, estatutuen aldaketa jasotzen da– fundazioaren patronatuko kide ez den doña Rosa Leal Sagasti idazkariak egiletsi zuen, 2012ko apirilaren 18an, Donostiako Fermín Lizarazu Aramayo notarioaren aurrean (protokolo-zk.: 1.046).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 9a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.